

# Emakume Bake Nobel Saria

## Mujeres premio nobel de la paz



1896. urtetik hona, Nobel sariak banatzen dira urtero Oslo hirian. Ordutik hona, 822 pertsonek jaso dituzte sari hauek; horietatik, 40 emakumek bakarrik.

Zenbaki hau ez dator bat emakumeok historian izan duten eraginarekin.

Woody Allen zuzendariak dioen moduan, “ikustarazpena arrakastaren %80a da”.

Hori dela eta, taupada honen bidez, emakumeok historian, bizitzako arlo guztietañ zehar jokatu duten papera ikustarazi nahi dugu, besteak beste, bakegintzan.





# Bertha-von-Suttner

Data / Fecha	1843-1914
Jaioterria / Nacionalidad	Austria
Lanbidea / Ocupación	Idazlea
Premio Nobel Saria	1905

1889n, 46 urtekin, *Die Waffen nieder! (Armak behera!)* eleberria argitaratu zuen. Bakegintza alorreko nazioarteko klasikoa bihurtu zen eta hizkuntz anitzetara itzulia izan zen.

Lan honetan gerra islatzen du emakume baten ikuspuntutik, gizartea sensibilizatz, gerra eta militarismoaren kontrako eztabaida piztuz.



# Jane Adams



Data / Fecha	1860-1935
Jaioterria / Nacionalidad	EEBB / EEUU
Lanbidea / Ocupación	soziologoa
Premio Nobel Saria	1931

Lehendabiziko Munduko Gerrarekin arduratuta, 1915ean Women's International League for Peace and Freedom. Elkartea sortu zuen. Estatu Batuak gerran partehartzearen kontrako jarrera hartu zuen, eta Woodrow Wilson presidentearenkin bat egin zuen.

Urte bereab La Hayako emakumearen nazioarteko hitzaldiak zuzentzen hasi zen; bertara 28 herrialdetako 1500 emakumek hartu zuten parte.



# Emily Greene Balch



Data / Fecha	1867-1961
Jaioterria / Nacionalidad	EEBB / EEUU
Lanbidea / Ocupación	idazlea
Premio Nobel Saria	1946

Lehendabiziko Munduko Gerran Women's International League for Peace and Freedom elkartea sortzen lagundu zuen. Estatu Batuak Gerran parte hartzearen kontrako jarrera hartu zuen.

Bakegintzan izan zuen jarrerarengatik, Wellesley Collegen ez zioten kontratua berritu. “**The Nation**” aldizkariko editorea bihurtu zen, liberal korronteko aldizkari ezaguna.





## Betty Williams

Data / Fecha	1943
Jaioterria / Nacionalidad	Ipar Irlanda
Lanbidea / Ocupación	Bakegintzan aritua
Premio Nobel Saria	1976

Bakearen aldeko Emakumeen mugimenduko aiitzindariak. Gerora, [Ciaran McKeown](#) bakezalearekin batera Ipar irlandako Bakerako Mugimendua sortu zuten.

## Mairead Corrigan

Data / Fecha	1944
Jaioterria / Nacionalidad	Ipar Irlanda
Lanbidea / Ocupación	Bakegintzan aritua
Premio Nobel Saria	1976



# Teresa de Calcuta



Data / Fecha	1910-1997
Jaioterria / Nacionalidad	Mazedonia
Lanbidea / Ocupación	Moja
Premio Nobel Saria	1979

Kalkutan **Missionaries of Charity** sortu zuen 1950ean.

45 urte baino gehiagotan txiroak, gaixoak, umerzurtz eta hilzorian zeuden behartsuak lagundu zituen.



# Alva Mildar



Data / Fecha	1902-1986
Jaioterria / Nacionalidad	Suezia
Lanbidea / Ocupación	Diplomatikoa
Premio Nobel Saria	1982

Desarmatzearen alde lan egiteagatik  
Alfonso García Robles  
mexikarrarekin batera.



# Aung San Suu Kyi



Data / Fecha	1945
Jaioterria / Nacionalidad	Birmania
Lanbidea / Ocupación	Giza eskubideen aldeko eta Birmaniako askatasunaren aldeko ekintzailea
Premio Nobel Saria	1991

1962z geroztik Birmanian dagoen diktaduraren kontra lan egiteagatik da ezaguna.

Suu Kyik azkeneko 21 urteetan, 15 gutxienez, askatasunik gabe igaro ditu, kartzelan edo etxeko barruko arrastatzean.



# Rigoberta Menchú



Data / Fecha	1959
Jaioterria / Nacionalidad	Guatemala
Lanbidea / Ocupación	Herri indegenen aldeko ekintzailea
Premio Nobel Saria	1992

Herri indigenen aldeko borrokan bat egin du; horrek jazarpen politikoa eta exilioa ekarri dizkio.



# Joddy Williams



Data / Fecha	1950
Jaioterria / Nacionalidad	EEBB / EEUU
Lanbidea / Ocupación	Idazlea, Ekintzailea, irakaslea
Premio Nobel Saria	1997

Pertsonen kontrako minen kontrako  
borrokagatik da ezaguna.



# Shirin Ebadi



Data / Fecha	1947
Jaioterria / Nacionalidad	Iran
Lanbidea / Ocupación	Epailea, abokatua
Premio Nobel Saria	2003

Epaitegi bat presiditzen lehen emakumea da Iranen 1975ean.

1979ko iraultza islamikoaren ostean, ordea, epaile izateko eskubidea galdu zuten emakumeek Iranen; beraz, kargutik kendu zuten eta lan adminisitratibo soiletara baztertua izan zen.

Emakumeen eta haurren aldeko borrokagatik jaso zuen saria, bereziki.



# Wangari Maathai




Data / Fecha	1940-2011
Jaioterria / Nacionalidad	Kenia
Lanbidea / Ocupación	Ekologista, biologoa, albaitaritza
Premio Nobel Saria	2004

Bakea, demokrazia eta garapen iraunkorraren alde egindako lanarengatik jaso zuen Nobel Saria. Afrikako lehen emakumea izan da sari hau jasotzen.

1977n Gerriko berde izeneko mugimendua sortu zuen, Kenian 30 milioi zuhaitz landatzen sustatu duena. Honek, lurrazen higadura moteltzea ekarri du, eta bide batez, horretan zebiltzan emakumeen bizimodua hobetzen lagundu du.



# Ellen Johnson-Sirleaf



Data / Fecha	1938
Jaioterria / Nacionalidad	Liberia
Lanbidea / Ocupación	Politika, ekonomilaria
Premio Nobel Saria	2011

# Leymah Gbowee

Data / Fecha	1972
Jaioterria / Nacionalidad	Liberia
Activista	ekintzailea
Premio Nobel Saria	2011

Leymahk *Women of Liberia Mass Action for Peace* y *Pray the Devil Back to Hell* elkarteak antolatu zuen, 2003ko Liberiako bigarren gerraren zibilaren kontra aritutakoa. Honek ahalbidetu zuen Ellen Johnson Sirleaf Liberiako presidentea izendatzea, Afrikako lehen emakume presidentea.



# Tawakkul Karman



Data / Fecha	1979
Jaioterria / Nacionalidad	Yemen
Lanbidea / Ocupación	Kazetaria, ekintzailea, politika
Premio Nobel Saria	2011

Yemengo kazetaria, politika eta ekintzailea, giza eskubideen alde lan egin duena. 2005ean katerik gabeko emakumeak izeneko elkartea sortu zuen.

Leymah Roberta Gbowee eta Ellen Johnson Sirleaf liberiarrekin batera eskuratu zuen Nobel Saria, “emakumeen segurtasunaren alde eta bakea eraikitzen parte hartzeko duten erabateko eskubideen alde egindako biolentziarik gabeko gudarengatik”.



Nobel saria jaso duten 40 emakumentzat  
eta emakumen ororen omenez

